

10 KOMPROMISO BILBAO



JUAN MARI ABURTO
CANDIDATO A LA ALCALDÍA
DE BILBAO

- #1 PERTSONEN DUINTASUNAREKIN.** Hiri honetako bihotza direlako. Eta Bilboren garapenak ezin duelako inor atzean utzi. Horregatik, gure jarduketa guzti-guztiak zuzenduko dira bilbotarren ongizatea bideratzera, arraza, sexua, ideologia, jatorria edota erlijioa direla-eta inolako bereizketarik egin gabe.
- #2 BALIOEKIN.** EAJ-PNVko udal gobernuak beti zintotasunez, zuzentasunez, justiziaz, ekitatez eta ahalginez jarduteko konpromisoa hartzen du. Eta balio horiek udal antolakuntzara eta Bilboko gizarte osora zabaltzeko konpromisoa ere hartzen du.
- #3 JARDUERA EKONOMIKOAREKIN ETA ENPLEGUAREKIN.** Gure lehenetasun nagusia jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea izango da. Horretarako, konprometituri jarraituko dugu era guztietako jarduerak, proiektuak eta ekimenak bultzatzen eta sustatzen, Bilbo mundu maparen lehendabiziko postuetan egon dadin.
- #4 HIRI ZABAL ETA PARTE-HARTZAILE BATEKIN.** Guztion alkatea eta gobernu taldea izateko, herritarrek parte hartzeko mekanismoak sendotuko ditugu eta beti jakingo dugu entzuten, hitz egiten, negoziatzen eta akordioak lortzen.
- #5 GARDENTASUNAREKIN ETA BIDEZKO GOBERNUAREKIN.** Zuzentasunaz eta efizientziaz jardungo dugu udal administrazio hurbil, arin eta eraginkorra eraikitzen jarraitzeko tresna modura. Bilbotarren zerbitzurako.
- #6 LANKIDETZAREKIN.** Gure ustez, Bilboko pertsonen eta enpresen garapenak gainerako erakundeen inplikazioa eta laguntza behar ditu (bereziki Eusko Jauralaritzarena eta Bizkaiko Foru Aldundiarena) eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz.
- #7 BERRIKUNTZAREKIN.** Gure izaeratik eta tradizioetatik abiatuz, hiri sortzaile, moderno, abangoardista eta berritzaile baten aldeko apustua egingo dugu, hitzaren esanahirik zabalenean: kultura, gizarte eta ekonomia arloetan.
- #8 EUSKARAREKIN.** Euskara babestu, bultzatu eta erabiliko dugu, nor-tasun ezaugarri eta aberastasun gisa.
- #9 BIZI KALITATEAREKIN.** Bilboz harro gaude. Eta gure hiriarren aldeko harrotasun hori erakutsiko dugu, garbi, seguru, berde, irisgarri eta eroso mantenduz. Lan egingo dugu bizi kalitatea iraunkorki haziz joan dadin.
- #10 AUZO GUZTIEKIN.** Auzo guztien garapen orekatsua bultzatuko dugu, modu ekitatiboan eta iraunkorrean biziberritzeko. Betiere bizi nahi dugun hirian pentsatuz. Bai eta bertan bizi izango direnei utziko diegun ondare eta legatuan ere.